

# SAKONETA

Lurraren liburua

Argazkiak: LETXEZARRAGA



2,7  
Km

2,3h

Wikiloc-en  
topatuko duzu  
ibilaldi hau

GnatKonekta



## Sarbidea

Zumaiaatik N-634 errepidea hartu Debarantz, eta, gutxi gorabehera 35. kilometro puntuan, eskuinetarantz irteten den pista homigoizatua hartuko dugu. 0,85 km inguru egin ostean, Errotaberri baserri parera iritsiko gara, eta zabalgunek bat ikusiko dugu autoa uzteko. AP-8 autobideko Itziarreko irteeratik ere sar daiteke, N-634 errepidea Zumaiarantz hartuz, eta, 35. kilometro puntura iritsitakoan, ezkerretarantz irekitzen den pista hartuko dugu, harik eta lehen aipatutako aparkalekura iritsi arte. Atxikita dauzka hainbat instalazio, hala nola aisia gu-neak, zabuak, mahaiak, komunak...

## Zailtasuna eta errekerimenduak

Ibilbide honek ez du ageri nabarmentzeko moduko zailtasunik. Halaber, ez du ekipamendu berezirik eskatzen, mendi ibilietarako oinetako eta arropa egokiak baino ez. Komeni da ura eta elikagai arinen bat eramatea. Halaber, hartu ahal dela telefono mugikorra aldean, ezer gertatuko balitz ere.



1/6

Gnaturaldia  
Konekta

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ingurumen eta Orib  
Hidrokarbonato Departamentua



ETORKIZUNA ORAIN  
Es futuro

# SAKONETA

## Deskribapen laburra

Ibilbide osoa Deba udalerrriaren barruan dago, eta Euskal Kostaldeko Geoparkearen zirkunskripzioan daude zeharkatzen dituen lurrak. Erabilera publikoko bide batean barrena oinez, Errotaberri errekaaren ertzean tipi-tapa -erreka horrek Sakoneta errekaekin bat egiten du, izen bereko senadian, Itziarko garai bateko komunitateko portuan-. Hartz sail itxi batean barrena joango gara, belardi oparoak eta hostozabal masa irmoak gurutzatuz, eta, bat ere uste gabe, Sakonetako itsas arras ikusgarri, harrigarri eta basatian agertuko gara. Naturak emandako opari ederra.



## Ibilbidearen eta bertan topatzen diren elementu naturalen eta kulturalen deskribapena

*Oharra: WP hizkiekin (ingeleseko waypoint-etik eratorriak) adierazten dira ibilbideko gako-puntuak, hala bidegurutze bat dagoelako, nola intereseko kokagunea delako. Eskuineko zutabearen jaso dira kokaleku horien argazkiak eta azalpenak.*

Errotaberri etxearen pare-parean dagoen zabalguneko-aparkalekuan gaudela (WP 1), izen bereko errekaetara gaintzen duen zubia



1972ko uztailean, Plan Energetiko Nazionala onartu zuten. Plan hartan zehazten zenez, zazpi errektore nuklear altxatu behar zituzten, 1980 eta 1983 artean martxan jartzeko. Testuinguru hartan, Iberduerok Deba eta Zumaia bitarteko kostaldea proposatu zuen 1973an zentral nuklear haietako bat eraikitzeko, Aitzuri eta Mendata lurmuturren artean. Herri oposizioak eta proiektu haren kontrako mugimendu orokorrak proiektua geraraztea lortu zuten, eta emandako argudioak beste zentral nuklear batzuk instalatzearen kontra erabili zituzten.

zeharkatu eta, egurrezko pasabide baten ondoren, hartz sorta ugari dituen belartza zabaletik aurrera joango gara. Behiak eta zaldiak ibili izan dira bertan larrean, eta litekeena da goazen heinean bururen bat ikustea, kume eta guzti. Animalia horiek aske aritzen dira larrean, eta ohiturik daude gizakiekin. Edonola ere, oso zorrotza dute defentsarako sena; hortaz,



Lur horiek estali bide zituzten baso itxiak belaunaldi belaunaldi bota izanaren ondorioz agertuak dira belardiok, eta erribera bideratu izanaren ostetik sortu dira, harri lehorrez zelaia lortzeko eginiko murruren bidez. Izadiak ematen dizkigun baliabideak ustiatzeko giza jardueren eta naturaren arteko interakzioaren historia.

## Waypoint (WP)



1. Irteera

# SAKONETA

**B**aso misto nahaspilatu hau batez ere zurbeltzez eta haritzez osatuta dago, eta tartean-tartean ageri ditu astigarrak, gurbitzak, elorri beltzak, hurritzak, erramuak... Babesleku segurua da basurde, orkatz, azeri eta azkonarrentzat, baita beste hainbat ugaztun basatirentzat ere, eta hegazti txikiak ere ibiltzen dira, hala nola txantxangorriak, birigarroak, eskinosoak eta presa hegaztiak, belatz gorria edo hontza, kasu. Orain gutxi, ia-ia desagertuan egon zen, industria erabilerarako egur ikatza eskuratzeko ustiapen handiagatik.

oinez ibiltzeko arazorik ez badago ere, gomendatzen dugu bakean uztea eta ez erakartzea jaten eman aitzakian, eta are gutxiago aztoratzea. Ez baitago aurreikusterik zer erreakzio izango duten.

Apenas desnibelik gabeko zelaian aurrera jarraituko dugu, erribera landaredi itxi baten parean – makalak, haltzak, urkiak, lizarrak, zumarrak, astigarrak, erramuak, gereziondoak eta abar–, eta, handik pixka batera (WP 2), baso mistoko eremu itxi batean sartuko gara, haritzak eta arteak nagusi direla –tarteka-marteka zumarrak, erramuak, elorri zuria eta elorri beltzak ere ikusiko ditugu, guztia ere arkasatsekin nahasian–. Agertoki horrek ederki erakusten du gaur egun ez dela giza alterazioen arrastorik, ingurumari horri balio ekologiko eta paisaia xarma berezia emanez.

Elorri zuriz, haritzez eta erramuz jantziriko oihanpe masa sartuezina eskuinetara dugula, zeina otez, arkasatsez eta garoz beterik (WP 3)

ageri baita, meandro bihurgunetsu batera irtengo gara, bi ertzetan segarako zelaiak dituela. Amaieran, zubi txiki batekin topo egingo dugu. Obra errustiko hau baino metro batzuk lehentxeago, garai bateko errota bat elikatzen zuen presa eta kanal izandakoaren aurriak ikusiko ditugu. Errekan behera joanda metro gutxiren buruan zegoen errota, goazen ertzaren beste aldetik. Gaur egun, erabat desagertuta dago.

Puntu horretan (WP 4), hainbat bidek bat egiten zuten, eta eskuinetarantz abiatzen den bidezidorrari helduko diogu, lauzaz estalitako erreka bat zeharkatuz.



## Waypoint (WP)



2. Baso misto atlantiarra



3. Belardia, ibaiaren meandroan



4. Bidegurutzea. Eskuineko bidea hartu




# SAKONETA

**S**enadi horietara, itxuraz iritsiezinak badirudite ere, jaskune izeneko sarbideetatik barrena iristen zen: kasu asko eta askotan, harri zabaletan irmo loturiko grapa eta ainguretatik esekitako sokak baliatuz. Oraindik ere makina bat lekutan ageri da sistema hori. Geure ezkerretan dugu horren adibide bat, behearantz. Arrantzaleek, surflariek eta beste hainbatek erabiltzen dute.

Segarako belardi batean gora egin, alboan sasiarte itxi bat dugula, eta, hegaldaren gailurrean, Flyscharen lliblidea zeharkatzen duen beste bide batekin topo egingo dugu. Eskailera maila errustiko batzuk igoz, iristear zaigun ikuskizunaren arrastorik gabe oraindik, flyscharen itsaslabar zoragarriek eta haren itsas masak osatzen duten paisaia pribilegiaturantz gerturatuko gara (WP 5).

Ikusi gabe sinesterik ez dagoen ikuskizuna da paisaia basati eta malkartsu hori, hasi Getarian urrunera ikusten den Talaimendi aldetik, Arantzazpi eta Portutxiki igaro eta geure oinetara dugun Arantzako porturaino iritsi arte.

Berriro bidera bueltatuta, ahoa bete hortz geratuko gara Errotaberri eta Sakoneta errekaen itsasoratzea parez pare izateak erakusten digun ikuspegiarekin, Aizkitzo tontorraren pean. Eta, barrenean Andutz mendia eta Mendata eta Santa Katalina goraguneak ditugula, behearantz abiatuko gara poliki-



poliki, lehen bezalaxe, belardi oparoaren eta sasarte nabarraren sakanean. Horren ostetik, hegalean txertaturiko bidezidor zahar batetik aurrera joango gara oinez, zeinak amilburu bat ageri baitu, harri lehorrez eginiko hormatxo neketsu batez estalirik (WP 6).

## Waypoint (WP)



5. Begiralekua eskuinean. Ondoren, lehengo bidean aurrera



6. Harrizko horma bide ertzean

tsas paraje honetan, fenomeno berezi baten gainean ageri dira Sakonetako muturreko itsaslabarrak: «marearteko zabalgunea» edo «urradura plataforma», milaka eta milaka urtean zizelkatua, mundu zabalean ezaquna den Euskal Kostaldeko Geoparkeko flyschan. Flysch terminoak estratu bigunen (tuparri eta arroka buztintsuak) eta gogorren (kareharriak eta hareharriak) alternantzia erritmikoa ageri duen edozer sedimentu sekuentziari egiten dio erreferentzia. Ehunka milioi urtean, aro kretazikoan zehar -orain 145 eta 65 milioi urte-, egun Euskal Herriak okupatzen duen itsas ohean, sedimentuak geruza horizontaletan metatzen joan ziren. Orain 50 milioi urte inguru, plaka tektoniko iberiar eta europarren arteko talkaren ondorioz, estratu horiek irten ziren, egun ikusten ditugun itsaslabarrak eratuz. Geruza horiek Lurraren historia geografikoari buruzko datuak ematen dituzte, hala nola dinosauoak desagertu zirenekoa, krisi biologikoak eta ingurumenean eta kliman izandako aldaketak. Kala honetan disgregatutako estratu eta blokeetan, ohikoa da itsas ornogabeen hainbat aztarna edo pista fosil agertzea.



# SAKONETA

Ondoren, ustekabeen agertuko zaigun baratze baten parean tartetxo bat igaro ondoren – kurioso asko ipinia–, Sakonetako marearteko zabalgunea ikusgarria agertuko zaigu (WP 7): itsasoan sartzen den fenomeno natural harrigarri bat, itsasaldien arabera, 300 m ere bai. Egundoko parajea da.

Itsasbehera denean, paisaia zoragarri eta iradokitzaile hau eskura dugu gozatzeko, itsasorantz doazen estratu lerro erakargarrietan barrena. Nolanahi ere, kontu hartu behar dugu arrokak estaltzen dituzten goroldioekin irrist ez egiteko, eta

oso kontuan hartu behar dugu itsasoaren beheraldia. Hartara, arriskurik gabe ibili ahalko gara putzu artean maiseatzen, hango bizitza eta koloreak aurkitzeko.

Hainbeste harridura eta gozamenekin liluraturik, ekarri gaituen bidezidorretik barrena itzuliko gara atzera. Hala, karabineroen kuarteltxo bat hartu zuen plataforma zeharkatuz, Errotaberri erreka zubi baten gainetik (WP 8), eta, pauso batzuk aurrerago, Sakoneta erreka zubi baten gainetik igarotzen den bigarren zubi bat baino lehentxeago (WP 9), ezkerretara joko dugu.

Ingurumari hau, horren liluragarri eta gorena, karabineroen kuartel baten kokaleku izan zen urteetan, kostaldeko kontrabandoa kontrolatzeko. Egiteko horretarako, primerako bista eskaintzen zuten badia honek eta inguruko beste batzuek. Karabineroen kidego militarra 1829an eratu zen, kostaldea eta mugak zaintzeko, baita zerga iruzurra eta kontrabandoa erreprimitzeko ere. 1940an, Guardia Zibilak hartu zuen bere gain egiteko hori.

## Waypoint (WP)



7. Marearteko zabalgunea



8. Zubia



9. Zubiaren aurretik, ezkerreara



# SAKONETA

Zuhaitzik gabeko belardi batetik gora, instalazio militar horretako hormigoizko uharken parean, aldapa labur batera iritsiko gara, haltz zahar batean parean (WP 10); inguruko Sakoneta baserritik datorren garai bateko gurdibidearen trazatua da.

Ezkerretara joko dugu, platano arbola lerdan baterantz, Errotaberri errekaostaren ezkerreko aldean oinez, hegalean sarturiko beste

tarteetan bezalaxe, belardi eta sastrakadi nabarren artean. 250 m ingururen ostean, lehen albo batera utzi dugun zubira iritsiko gara (WP 4), Portutxikiko begiratokira igotzeko. Zubi hori gurutzatu, eskuinetara hartu eta, galtzeko beldurrik gabe, lehen egindako bidetik bueltatuko gara, aurretik gozatu ditugun giro guztiguztiak miretsiz. Eta halaxe iritsiko gara Errotaberriko aparkalekura, kotxea utzi dugun tokira (WP 11).

## Waypoint (WP)



10. Goiko bidea hartu, ezkerarantz

11. Helmuga



*Gogoratu mendia, basoa eta hondartzazaindu behar dituzula, errespetatu animalia eta landareak eta eraman sortutako zaborra etxera bueltan.*

